

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## ‘Margotu zure energia garbia’, eskola marrazki-lehiaketak energiaren erabilera arduratsua sustatzen du

*DBHko 3. eta 4. mailako, Batxilerreko, Oinarrizko LHko eta Erdi Mailako Heziketa-zikloetako ikasleentzat da*

Osteguna, 2018.eko azaroak 22

Garapen Ekonomikoko Departamentuak, Hezkuntzarekin elkarlanean, marrazki-lehiaketa aurkeztu du ostegun honetan institutuetoako ikasle eta batxilerrekoentzat, energiaren erabilera arduratsua modu sortzailean jasotzeko. Proposamen irabazlearen egileak bizikleta elektrikoa jasoko du, eta obra Garapen Ekonomikoko Departamentuaren teiltatu lauan erreproduzituko da. Halaber, ikasle irabazlearen ikastetxeak instalazioetan energia-eraginkortasuna hobetzera bideratutako elementu-sorta jasoko du.



Martin Ibarra, Isabel Berruezo eta Roberto Pérez Elorza lehiaketaren aurkezpenean.

Hezkuntzako zuzendari nagusi Roberto Perez Elorzak, Plan Energetikoaren Ataleko burua den Martin Ibarrak eta Sustapen eta Behatokiaren Negoziatuko burua den Isabel Berruezo "Margotu zure energia garbia" goiburua duen lehiaketa aurkeztu dute ostegun honetan, 2018rako EBeren Aste Iraunkorrean erabilitakotik hartuta, "Izan zaitez lehena Energia Garbiaren Trantsizioan".

Hezkuntzako Zuzendari Orokor Roberto Perez Elortzak azpimarratu duenez, "energiaren kontsumo arduratsuan konzientziarioa egin bai baina eredugarri ere izan beharra dugu. Hezkuntzak eraiki dituen zentroak esaterako, passivhaus irizpideekin egin dira. Gure edukiontzia, nolabait, jasangarriak dira, baina gure eskola-edukiek ere hala izan beharko lukete."

Horregatik mintzatu da Iraunkortasuna Sustatzen duten eskola sareez, ingurumen gaiak lantzen dituzten ikastetxeak batzen dituen proiektuaz hain zuzen ere. Lanketa hau zeharo lotu du Perez Elortzak lehiaketa honekin "izan ere, ezinbesteko papera jokatzen dute ikastetxeek, egungo ikasleak bihar energiaren kontsumo arduratsua eginen dutenak dira, baita sustatuko dutenak ere. Horregatik da ezinbestekoa eskolan arlo guzietan lantzea, eta horixe da lehiaketa honek proposatzen duena: sormena landuz kontzientziari eragitea."

Lehiaketa DBHko 3. eta 4. mailako, Batxilerreko 1. eta 2. mailako, Oinarrizko Lanbide Heziketako eta Erdi Mailako Heziketa-zikloetako ikasleentzat da. Lanak gaurtik hasi eta abenduaren 21era bitarte aurkez daitezke Nafarroako Gobernuaren izapide-katalogoko [fitxa honetako](#) jarraibideak jarraituta.

Institutuan, etxean, ikastetxean edo herriko kaleetan, mugikorra kargatzean edo gelatik irtetean argia itzaltzean,... energiaren erabilera arduratsua mila hitzek baino hobeto eta modu sortzailean adierazten duen edozein irudi aurkez daiteke lehiaketara.

Parte-hartzaileen sormena marrazkietan, pinturretan, diseinu grafikoetan edo bestelako tekniketan jaso ahal izango da. Ez da beharrezkoa euskarri zehatz bat erabiltzea; papera erabil daiteke, mihisea edo euskarri digitaleko sormen-lana, baina 4 metroko altueran eta 11 metroko zabalera eskalagarria izango da, ondoren "Fuerte del Príncipe Eraikineko" teilatu lauan dagoen instalazio fotovoltaikoaren iparraldeko aldean erreproduzitzeko.

[Asteazken honetako NAO](#)n argitaratu da Industria, Energia eta Berrikuntzako zuzendari nagusiaren Ebazpena, eta, bertan, deialdiaren oinarriak azaltzen dira.

### **Zortzi finalista bizikleta elektrikoa eskuratzeko**

Ikasle irabazleak saritzat bizikleta elektronikoa eta diploma jasoko ditu, eta haren obra Garapen Ekonomikoko Departamentuaren eraikin nagusian irudikatuko da, Iruñeko Tomas Caballero Parkean. Era berean, irabazlea suertatu den ikaslearen ikastetxeak energia aurreztera bideratutako elementu-sorta jasoko du, 1.000 euroko balioa duena.

Lehiaketa ikastetxeetan sustatu da, kartelak jarri baitira eta posta elektronikoak bidali. Gainera, Instagramen kanpaina zabalduko da, sare sozial honetan indar handia duten ikasleak zuzenean animatzeko.

Epaimahaia honako hauek osatuko dute: Industria, Energia eta Berrikuntzako zuzendari nagusiak; diseinua eta/edo hiriko artea, arkitektura eta energia berriztagarriak eta iraunkorrak arloetako hiru profesionalak; Plan Energetikoaren Ataleko buruak; eta Sustapen eta Behatokiaren Negoziatuko buruak. Lanak jasotzeko epea amaitutakoan, epaimahaiak zortzi lan finalista hautatuko ditu urtarilaren hasiera aldera.

Diseinu finalistak lehiaketarako sortutako web orrian argitaratuko dira: <http://www.concursoenergialimpia.navarra.es> . Gainera, 13 urtetik gorako edonork bere gustuko diseinuaren aldeko botoa eman ahal izango du.

### **Plan Energetikoak sentsibilizatzea eskatzen du**

Sustapen-jarduera Nafarroako Gobernuak pasa den urtarilean onartutako [Nafarroako Plan Energetikoan \(Horizonte 2030\)](#) kokatzen da. Dokumentuak "herritarren artean energiaren inguruan kultura berria hedatzera" bultzatzen du edota "herritarrekin komunikazio eta parte-hartze egokia sustatzea eta bermatzea".

Foru Exekutiboak bestelako neurri batzuk ere aplikatu ditu azken hilabeteetan; hala nola, %30eko kenkari fiskala PFEZean eta sozietateen gaineko zergan, ibilgailu elektrikoak erosterakoan. Beraz, neurri horien bitartez, kontsumoak arrazionalizatzeko eta mugikortasunean ohitura berriak hartzeko politikak indartzen dira. Horren inguruan [publizitate-kanpaina](#) egin zen pasa den ekainean.